





4. unitatea.- Objektuak hautatu, elkartu eta banandu Notebook – Ien bidez.


4.1.- Objektuak hautatu

ADI batez lan egitearen alde onetako bat da guk arbelean egiten dugun guztia (idatzi edo marraztu) gorde dezakegula gerora beste noizbait erabiltzeko, edo, zer edo zer gehitzeko eta aldatzeko ere bai. Baina badu beste ezaugarri bat ere, zera, arbelean objektuak alde batetik bestera eraman ditzakegula. Horretarako ADIak elkartu egiten ditu guk egindako objektuak mugimendu hori errazte aldera. Hala da, arbelean testu bat idazten dugunean edo objektuak marrazten ditugunean arbelak berak testu eta objektu hori guztiak batera biltzeko joera du, **non eta ez ditugun arkatzairen ezaugarriak aldatzen edo ez dugun menuan aukera berri bat hautatzen**. Baina ez da beti horrela izaten. Beste batzuetan logikarik gabeko beste irizpide batzuk jarraitzen ditu eta esanarazten digu ez dagoela ADIak objektuak nola elkartzen dituen arau garbirik. Dena dela, ez dugu eragozpen handirik izango ADIak egiten duen objektu elkartzea eta banantzea guk nahi dugun eran aldatzeko eta benetan guk nahi dugun aldera hurbiltzeko. Adibide batzuez ikusiko dugu:

Hasteko, honako testu hau idatzi dut ADIan:




Gero honako  ikono hau markatu dut **Objektuak hautatzeko**. Testuaren gainean kokatu naiz eta kurtsorea honelako  figura bihurtu denean, saga sakatu dut eta zera gertatu da:



Hau da, testu osoa multzo bakar batean hautatu duela. Orain, egindako hautespen hori ezaba dezaket, mugitu, tamaina aldatu, jiratu, etab.

Ikus dezagun orain beste adibide bat: hiru lerro idatziko ditut, baina hiru kolore desberdinez; alegia, errotulagailu bat utzi eta beste hartu beharrean izango naiz kolorea aldatu nahi dudan bakoitzean. Honako hau idatzi dut eta, gero, dena batera hautatzen ahalegindu naiz, baina ezin izan dut. ADIak koloreka elkartu du testu hau; alegia, errotulagailua aldatzen nuen aldi oro elkartze bat zela irizten zion. Beraz, oraingoan, hiru multzo ditugu:







4. unitatea.- Objektuak hautatu, elkartu eta banandu Notebook – Iiren bidez.

4.2.- Objektuak elkartzea

Marrazki xume bat egingo dugu orain. Amaituta eta berehala hautatuko dut marrazkia **Hautatu objektuak** apartatuan jarraitu diodan bide berari jarraituta: marrazki osoa multzo bakarrean sartuta dago.



Marrazten jarraituko dugu ADIak nolako portaera dituen ikusteko ahaleginean. Erreparatzen baldin badiegu eskuin aldeko bi marrazkiei eta gerora egin den hautaketari, ohartuko gara goiko aldeko marrazkian koloreka elkartu direla; hau da, kolorea aldatu dudanean beste elkartzet bat hasi du. Behekoan, aldiz, figura bakoitzeko multzo bat sortu du, eta, nahiz eta ni saiatu naizen bi figura berdin egiten bata bestearen ondoan, hala eta guztiz ere, ez du kontuan hartu eta ez ditu multzo berean sartu.




Orain artean ADIak objektuak nola elkartzen dituen ikusi dugu, baina aurrera jarraitu baino lehen, honezkero segur aski zeure buruari ere eginak dizkiozun galdera hauei erantzungo diegu: **zer helburu du honek guztiak? Zergatik du horrenbesteko garrantzia elkartzeak?**


Objektuak elkartzearen garrantzia

Objektuak elkartuta edukitzeak lana errazten digu objektu horiek mugitu, ezabatu, kolorea aldatu, tamaina handitu, eta abar egin behar denean. Mugitu, kopiatu, ezabatu, eta abar, egiten dugunean objektu multzoa mugitzen, kopiatzen, ezabatzen dugu; marken artean jasota dagoena. ADI batez lan egiteak alde on asko du. Besteak beste, eta esate baterako, arbelaren goiko aldean objektu bat marraztu

baldin badugu eta orain beste toki batera aldatu nahiko bagenu, ez dugu ezabatu eta beste toki horretan berriro marraztu beharrik; aski da hautatu eta toki batetik bestera eramatea. Beharbada hobeki ulertuko duzu adibide honekin:

Egin dezagun kontu behe aldeko ezkerreko irudian ikusten duzun lan hori prestatu dudala nik, eta orain, ikasleek figurak identifika ditzaten nahi dudala eta figura bakoitzaren oinean identifikatzen duen izena ipin dezaten nahi dudala. Ongi, bada; nahikoa izango da testu

horietako baten gainean kokatu eta kurtsoa honako  ikono hau bihurtutakoan izenean klikatu eta dagokion figuraren oinera arrastatzea, eskuin aldean ikusten dugun bezala utzi arte:



Oso ongi joan da hemen guztia, figura bakoitzak eta testu bakoitzak unitate bat osatzen baitzuten, baina, zer gertatuko zen, esate baterako, "**Zirkulua eta Erronboa**" multzo berean egon balira? Bada, banandu egin beharko ziren aldez aurretik. Eta nola egiten da hori?




4. unitatea.- Objektuak hautatu, elkartu eta banandu Notebook - IIren bidez.

4.3.- Objektuak banantzea.


Itzul gaitezen lehengo irudira, figura batzuk esku hutsez marraztuak genituen irudira. Hautatuko ditut kolore gorrikoak, hau da, errektangelua eta triangelua, eta identifikagailuaren gaineran klikatuko dut




Menu bat agertuko da hainbat aukerarekin. Aukera horietan bat **Elkartzea** da, eta aukera horrek **Banandu** aukera du bere baitan.




Banandu hautatu eta ikusiko dut errektangelua eta triangelua banandu egin direla, eta jadanik horietako bakoitzak unitate bat osatuko duela eta unitate horiek bakoitza bere aldetik aldatu edo ezabatu ahal izango ditugula bestearekiko inolako loturarik gabe.



Tamalez, ordea, ez da beti horren erraza izaten. Goazen berriro esku hutsez egindako etxearen marrazkira. Hautatuko dut eta lehen ikusi dugun **Elkartzea - Banandu** aukera hartuko dut. Honako hau da emaitza:





Ikus dezakegunez, egundoko nahaspila. Baina ez dago zertan kezkatu, denerako bai baitago konponbidea, oso erraza gainera. Egia esan, **Banandu** besterik ez dugu gero berriro **Elkartura** itzultzeko. Ikus dezagun nola egin daitekeen beste adibide baten bidez:



Gure helburua triangelua eta **Triángulo** hitza banantzea da. Lehen ere ikusia dugun prozesua jarraituko dugu eta **Banandu** hautatuko dugu.

Hona emaitza: triangelua bi partetan banandu du, **Triángulo** hitza, berriz, zortzi partetan.

Orain saguaz arbeleko zuriune batean klikatuko dugu eta gero **Triángulo** hitza hautatuko dugu. Ondoren identifikatzaileetako edozein sakatuko dugu  eta **Elkartzea** aukera hautatuko dugu eta gero **Elkartu**, eskuineko figuran ikus dezakegun bezalaxe.



Hauxe izango da emaitza. Aurrerantzean **Triángulo** hitzak unitate bat osatuko du, lehen bat eginda zegoen marrazkitik banandutako unitatea.